



Arartekoaren 2023R-1137-23 Ebazpena, 2023ko abuztuaren 8koa. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari gomendatzen zaio berrius dezala Gaztelagun programaren alokairurako laguntza batengatik sortutako zenbatekoa.

Aurrekariak

1. Arartekoak herritar baten kexa izapidetzeko onartu zuen, zeinaren bidez adierazi baitzuen ez zegoela ados Gaztelagun programaren etxebizitzaren alokairurako laguntzaren sortzapen-dataekin.

Zehazki, kexagileak Arartekoari jakinarazi zion 2022ko abuztuaren 29an alokairurako dirulaguntza behin-behineko aitortzeko eskatu zuela telematikoki. Era berean, eskaera izapidetu bitartean egin zituen jarduketan kopia bat aurkeztu zuen, "Nire karpeta" eremu pertsonalizatuaren bidez elektronikoki eskura zitezkeenak.

Lehenik eta behin, bidalitako informazioak espediente-zenbakia eta ebazpena ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea (2022ko azaroaren 29a) adierazten zituen.

Era berean, behar bezala egiaztatuta geratu zen 2022ko irailaren 15ean kexagileak errentamendu-kontratua aurkeztu zuela eta ordainagiria eman zuela. Gai horri dagokionez, kexagileak Arartekoari jakinarazi zion dokumentuak beste eskaera bat izapidetu nahi zuelako aurkeztu zituela. Hala ere, bere espedientea eskuratuta, adierazi zuen onartutako aukera bakarra dokumentazioa eranstea zela.

Era berean, 2023ko urtarrilaren 11n jasota geratu zen kexagileak dokumentazio berria aurkeztu zuela.

2023ko urtarrilaren 16an, Arabako Etxebizitzako lurralde-ordezkariek dirulaguntza behin-behinean onartzea ebatzi zuen, eta honako dokumentu hauek eskatu zizkion:

"Contrato de arrendamiento.

Justificante del abono de la renta mediante transferencia bancaria.

Certificado actualizado de empadronamiento en la vivienda arrendada.

Declaración responsable de no tener vínculos familiares con la persona/familia arrendadora."

Eskaerari erantzuteko, kexagileak adierazi zuen eskatutako dokumentazioa behar bezala aurkeztu zuela aurretik, eta, beraz, Arabako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzaren esku zegoela.



Hala ere, dirulaguntza aitortu eta ordainduko ziotela ziurtatzeko, 2023ko urtarrilaren 18an kexagileak eskatutako dokumentazioa berriro bidali zuen elektronikoki.

Amaitzeko, 2023ko otsailaren 2an, Arabako Etxebizitzako lurralde-ordezkariek kexagileari 202,5 euroko dirulaguntza ematea ebatzi zuen, eta 2023ko otsailaren 1a ezarri zuen sortzapen-data gisa.

2. Alokabide sozietate publikoak egindako izapideekin ados ez zegoenez, eta Arabako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritza prestazioa onartzeko luzatu zenez, 2023ko martxoaren 6an kexagileak gora jotzeko errekurtsua jarri zuen Etxebizitzako sailburuordearen aurrean.

Idazkian, kexagileak adierazi zuen ez zegoela ados prestazioaren sortzapen-datarekin. Horri dagokionez, nahiz eta 2022ko abuztuaren 29ko eskaera behin-behineko aitopenaren modalitatean aurkeztu, une horretan ez baitzuen nahitaezko errentamendu-kontratua, kexagilearen iritziz izapidetze-egoera ofizioz aldatu behar zen 2022ko irailaren 15ean; izan ere, orduan aurkeztu zituen errentamendu-kontratua eta etxebizitzaren errenta ordaindu izana egiaztatzen zuen transferentzia-frogagiria.

Nolanahi ere, adierazi zuen eskaera formalizatu zuenetik bost hilabetetan zehar ez zuela zuzentzeko errekerimendurik jaso.

Hori dela eta, dirulaguntzaren sortzapen-data gisa 2022ko urriaren 1a onartzeko eskatu zuen, eta, ondorioz, adierazitako datatik aurrerako zenbatekoak ordaintzeko.

3. Azaldutako egitateak ikusita, 2023ko maiatzaren 19an Arartekoak lankidetz-eskaera igorri zion Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari.

Idazkian Arartekoak informazioa eskatu zuen Alokabide sozietate publikoak Gaztelagun programaren alokairurako dirulaguntza izapidetzean egindako jarduketei buruz.

Era berean, Arartekoak eskaera izapidetzean izandako atzerapenaren arrazoiak azaltzeko eskatu zuen, baita, halakorik balego, kexagileari jakinarazitako zuzenketa-errekerimenduen berri emateko ere.

Azkenik, Arartekoak espedienteko dokumentu guztien kopia bidaltzeko eskatu zuen.

4. Egindako informazio-eskaerari erantzunez, 2023ko ekainaren 21ean, erakunde honen erregistroan Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuaren kabineteko zuzendariaren erantzuna jaso zen, eta horrekin batera Alokabide sozietate publikoko Arreta, Etxebizitza Aldaketa eta Prestazioetarako zuzendariak egindako txosten bat erantsi zen.



Txosten horrek, halaber, Arabako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzaren oniritzia zuen.

Laburbilduz, Alokabidek berretsi du kexagileak 2022ko abuztuaren 29an eskatu zuela dirulaguntza behin-behinean aitortzeko. Hala ere, espedienteko dokumentazioa aztertuta, egiaztatu du kexagileak emandako hirugarrenen alta-agiria ez zegoela behar bezala beteta. Zehazki, ez zegoen behar bezala jasota Kontrol Ekonomikoko Bulegoari baimena ematen zionik agirian jasotako datuak egiaztatzeko.

Hain zuzen ere, prestazio ekonomikoa izapidetzeari dagokionez, bidalitako erantzunean honako hau jakinarazi zitaion Arartekoari:

"...el expediente que nos ocupa se comenzó a tramitar el 3 de enero de 2023 (...).

Ese mismo día, conscientes de la demora y a fin de acelerar al máximo la tramitación, nos pusimos en contacto telefónico desde Alokabide con la perceptora para indicarle que, de cara a resolver su solicitud de reconocimiento provisional, era necesario la aportación del Alta de terceros correctamente cumplimentada."

Hori dela eta, kexagileak 2023ko urtarrilaren 11ra arte, hots, behin-behineko aitortpena jasotzeko hasierako eskaera egin eta lau hilabete baino gehiago igaro arte, ezin izan zuen hirugarrenen alta izeneko dokumentua sinatuta aurkeztu.

Nolanahi ere, errentamendu-kontratua eta ordainketa-egiaztagiria 2022ko irailaren 15ean emateari dagokionez, sozietate publikoak argudiatu du kexagileak ez zuela beste aitortpen-eskaera bat izapidetu. Aitzitik, behin-behineko aitortpeneko espedienteari dokumentazio hori erantsi zion.

Azken batean, Alokabidek uste du ezin dela baliozkotzat jo 2022ko irailaren 15ean aurkeztutako dokumentazioa, eta, beraz, ez litzateke zuzenbidearen arabera izango dirulaguntza 2022ko urriaren 1etik aurrera sortzea.

Azkenik, kexagileak 2023ko martxoaren 6an jarritako gora jotzeko errekurtsuaren izapidetze-egoerari dagokionez, Alokabidek honako hau jakinarazi zion Arartekoari:

"...tras la elaboración del informe con sentido desestimatorio, el recurso de alzada (...) está aún pendiente de ser resuelto y notificado por el órgano competente."

5. Horrenbestez, beharrezko egitateak eta zuzenbide-elementuak daude, eta horregatik honako gogoeta hauek egiten dira



Gogoetak

1. Duela hamarkada batzuetatik, bai 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (25.1 artikulua), bai 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (11.1 artikulua), bai Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak (34.3 artikulua), bai eta Europako Gutun Sozialak berak (31. artikulua) ere, etxebizitzak alderdi soziala duela azpimarratu izan dute, pertsonen eta beren familien bizi-baldintzak hobetzen dituelako

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak behin eta berriz agerian utzi du botere publikoek premiaz jardun behar dutela dagozkien eskumen-eremuetan, ohiko etxebizitza izateari eta erabiltzeari loturiko oinarrizko eskubideak bermatzeko¹.

2. Barne-mailan, etxebizitza-gaietan eskumena duten botere publiko guztien jardunari buruzko agindua edo gidalerroa Espainiako Konstituzioaren 47. artikuluan jasota dago. Hain zuzen ere, mandatu konstituzional horrek administrazio publikoak behartzen ditu, maila desberdinetan, beharrezko baldintzak sustatzera eta etxebizitza duin eta egoki bat gozatzeko eskubidea behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren arauak ezartzera; zehazki, lurzorua erabilera arautzera, espekulazioa ekiditeko interes orokorraren arabera.

Laburbilduz, arau konstituzional horrek herritarraren jarrera juridikoa bermatzen du; izan ere, bizitzeko leku baten beharra dute.

Espainiako Konstituzioaren 148.1.3^a artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.31 artikuluan xedatzen den eskumen-banaketaren arabera, etxebizitza-arloko eskumen osoa dauka Euskal Autonomia Erkidegoak (aurrerantzean EAE.)

3. Zentzu horretan, 2018-2020 aldirako Etxebizitzaren Gida Planak² berariaz ezarri zuen gazteen emantzipazioa sustatzera bideratutako formula eta neurri berriak garatzeko beharrezana.

Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Gaztelagun programaren alokairurako laguntzak lehenengo aldiz arautu zituzten oinarriak onetsi zituen 2018ko abenduaren 18an. 2019ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean, eta, hasiera batean, 2019, 2020 eta 2021eko ekitaldietarako dirulaguntzen aldi baterako programa gisa mugatu zen, zeuden aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta.

¹ **Europar Batasuneko Justizia Auzitegia.** Besteak beste: 2013ko martxoaren 14ko epaia (C-415/11) eta 2016ko abenduaren 21eko epaia (Sala Nagusia, C-154/2015, C-307/2015 eta C-308/2015 gai metatuak).

² **Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.** 2018- 2020 Gida Plana. Eskuragarri hemen: https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-ovad01/eu/contenidos/informacion/ovv_pdv_2018_2020/eu_def/index.shtml



Nolanahi ere, ikusita gazteen etxebizitza-premia gero eta handiagoa dela, etxebizitza-parke publiko eskasa dagoela eta merkatu librean dauden etxebizitzak eskuratzeko zailtasunak daudela, 2022ko apirilaren 26ko Aginduak behin betiko bihurtu zituen Gaztelagun programaren alokairurako laguntzak.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da Gazteen Euskal Behatokiak azterlan bat argitaratu zuela 2022ko abenduaren 27an³. Azterlan horretan ondorioztatzen denez, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Alokairu Merkatuaren Estatistikak jasotzen duen gordailututako alokairu-kontratuen fidantzen batez besteko zenbatekoa kontuan hartuta, EAEn 18-34 urteko gazte soldatadun batek soldataren % 51,1 gastatu behar du alokairuan.

Gainera, azterlanak agerian uzten du esfortzu bereziki nabarmena egiten dutela 25 urtetik beherakoek, hileko soldataren % 72,6 gastatu behar baitute alokairua ordaintzeko.

4. Aurretik azaldutakoa ikusita, eta gazteek etxebizitza bat eskuratzeko orduan dituzten zailtasun handiak kontuan hartuta, Arartekoak positiboko baloratzen ditu Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak esparru horretan hartu dituen sustapen-neurriak, emantzipazioan laguntzeko helburua duten aldetik.

Alabaina, Gaztelagun programaren alokairurako laguntzen erregulazioa eta laguntzok izapidetzeko atzerapena oztopo handia izaten ari dira programa horrek dituen helburuak erabat lortu ahal izateko.

5. Arartekoak egiaztatu du Alokabide sozietate publikoa dela, administrazio-zuzenbidearen mende, Gaztelagun programaren alokairurako laguntzaren izapidetzea behar bezala bultzatzeko ardura duena. Izan ere, 2022ko apirilaren 26ko Aginduaren 9.2 artikulua erakunde laguntzailearen izaera aitortzen dio, eta honako jarduketa hauek esleitzen dizkio:

- *“Aurrez aurreko informazio, orientabide eta aholkularitza indibidualizatua ematea, interesdunek eskabideak behar bezala bete ahal izan ditzaten, behar den dokumentazioa erantsita.*
- *Eskabideak jasotzea eta baldintzak betetzen direla ziurtatzea.*
- *Etxebizitzako lurralde-ordezkaritari eskaeren ebazpena eta ebazpenaren edozein aldaketa proposatzea.*
- *Laguntzak ordaintzea.*
- *Pertsona onuradunek eginbeharrak betetzen dituztela ziurtatzea”.*

Hala ere, Arartekoak egiaztatu du Alokabide sozietate publikoaren zeregina, praktikan, 2022ko apirilaren 26ko Aginduan jasotako jarduketetatik harago doala,

³ **Gazteen Euskal Behatokia - Observatorio Vasco de la Juventud.** Emantzipazioaren kostua Euskadin 2021ean. Eskuragarri hemen: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/egb-emantzipazioa/>



eta berez "organo izapidegilea" dela Gaztelagun programaren alokairurako laguntzak izapidetzean.

Hain zuzen ere, Arartekoak aukera izan zuen azaroaren 11ko 2022R-1393-21⁴ ebazpenean Alokabide sozietate publikoari dirulaguntzak izapidetzeko esleitutako eginkizunei buruzko iritzia emateko.

Hasteko, gogorarazi behar da urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuak zehazten duela Etxebizitza Sailburuordetzari dagokiola Visesa eta Alokabide sozietate publikoek garatutako jarduerak koordinatzea eta kontrolatzea⁵.

Hain zuzen, Alokabide oso-osorik kapital publikoarekin eratutako sozietatea da. Hori horrela, martxoaren 29ko 65/2011 Dekretuarekin⁶ eta abenduaren 9ko 230/2014 Dekretuak⁷ aldatu zituen bere estatutuekin bat etorriz, EAEko administrazio orokorreko sailen eta gainerako erakundeen bitarteko propio instrumental eta zerbitzu tekniko gisa eratu zen, eta horiek agindu ahal dute beren gizarte-xedearekin lotutako lanak, zerbitzuak eta jarduketak egitea, baldin eta administrazio-ahalak egikaritzetik ez badakarte

Zehatz-mehatz, Arartekoak egiaztatu du Alokabideren estatutuen 2.1 artikulua sozietate publiko horri berariaz debekatzen diola edozein administrazio-ahal egikaritza.

Horri dagokionez, gogorarazi behar da Estatu Kontseiluaren doktrinak zehaztu zuela dirulaguntzaren kontzeptua objektiboa dela, eta edonola ere, administrazio-ahal bat egikaritza dela⁸.

Kasu horretan, Arartekoak berriz ere egiaztatu du, arestian azaldutakoa gorabehera, sozietate publikoa, organo izapidegile gisa, administrazio-ahal bat

⁴ **Arartekoa.** Arartekoaren 2022R-1393-21 Ebazpena, 2022ko azaroaren 11koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari gomendatzen dio berriki dezala Alokabide sozietate publikoak bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen zuzendutako alokairu laguntzen deialdi batean egindako jarduketak. Eskuragarri hemen: www.ararteko.eus

⁵ **Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.** Urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretua. Horren bidez ezartzen da Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala. Eskuragarri hemen: EHAA, 21. zk., 2021eko urtarrilaren 29koa.

⁶ **Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Obra Publiko eta Garraio eta Ekonomia eta Ogasun Sailak.** Martxoaren 29ko 65/2011 Dekretua, Euskadiko Autonomia Erkidegoarena, Alokabide SA sozietatearen partaidetzak erosi, eta sozietate publikoa sortzea erabakitzen duena. Eskuragarri hemen: EHAA, 64. zk., 2011ko apirilaren 1koa.

⁷ **Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika eta Ogasun eta Finantza Sailak.** Abenduaren 9ko 230/2014 Dekretua, Alokabide SA sozietate publikoaren estatutu sozialak aldatzea baimentzen duena. Eskuragarri hemen: EHAA, 241. zk., 2014ko abenduaren 18koa.

⁸ **Estatu Kontseilua.** Dirulaguntzen Lege Orokorraren aurreproiektuaren irizpena. Espedientea: 1756/2003, ekainaren 26koa.



egikaritzen ari dela Gaztelagun programako etxebizitzaren alokairurako dirulaguntzak izapidetzeko. Sozietatearen estatutuek ahal hori egikaritzea debekatzen diote Alokabideri, aurretik jadanik aipatu den bezala.

6. Gai hori aztertzean, Arartekoak ondo ezagutzen du Auzitegi Gorenak apirilaren 12ko 469/2023 Epaian⁹ ezarritako azken jurisprudenzia. Erabilitako argudio juridikoa zalantzan jarri bada ere¹⁰, azpimarratu behar da aipatutako erabaki judizialean jasotako gertakarien kontaketa ez datorrela bat kexa honetan aztertutakoarekin.

Auzitegi gorenaren irizpenean adierazitakoaren kontra, ebazpen honetan aztertu den kasuan Alokabide ez da mugatzen laguntza zehatz bat edota egoeraren araberako laguntza bat ematera. Izan ere, organo izapidegile gisa dituen ahalmenak jarduketa guztietara hedatzen dira, Gaztelagun programaren dirulaguntzak aitortzeko nahitaezko administrazio-prozedura agintzen, bideratzen eta bultzatzen baitu.

Hori dela eta, ez da ahaztu behar, lehen azaldu den bezala, Alokabide 2019ko urtarrilaren 1ean hasi zela laguntzen programa kudeatzen, eta eginkizun horiek urtero bete dituela, eta, gaur egun, programa iraunkorra dela.

Aipatutako epaiaren zentzuzko irakurketa egite aldera, eta harekin batera doan boto partikularra kontuan hartuta, Arartekoak bere uste osoa berretsi du: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak Alokabide sozietate publikoari eska diezaiokeen laguntzak ez dio Alokabideri legez baimentzen Gaztelagun programa antolatzeko, bideratzeko eta bultzatzeko ia administrazio-ahal guztiak baliatzea.

7. Testuinguru zehatz horretan, eta Gaztelagun programako laguntzak izapidetzeko Alokabide sozietate publikoari esleitutako ahalmenei buruzko ondorioa berriro azpimarratu ondoren, Arartekoak beharrezkotzat jotzen du dirulaguntza izapidetzeko eta aitortzeko izandako atzerapena aztertzea.

2022ko apirilaren 26ko Aginduaren 12. artikulua laguntza aitortzeko izapideak interesdunak errentamendu-kontratua izan gabe hasteko aukera aurreikusten du.

Testuinguru horretan, sortzapena baimentzen duen behin betiko ebazpena emateko, besteak beste, errentamendu-kontratua aurkeztu beharko da.

Hala eta guztiz ere, Arartekoak gogorarazi du 2022ko apirilaren 26ko Aginduaren 13.4 artikulua jasotzen duela Etxebizitzako lurralde-ordezkariek eskaera egiten denetik hiru hilabeteko epean ebatzi eta jakinarazi behar duela erabakia.

⁹ **Auzitegi Gorenak**. 469/2023 Epaia, apirilaren 12koa. [ECLI:ES:TS:2023:1613].

¹⁰ **José Ramón Chaves García**. Auzitegi Gorenak ateak irekitzen dizkio sozietate publikoetako langile lan-kontratudunek administrazio-prozedurak kudeatzeari. Eskuragarri hemen: www.delajusticia.com



Bada, kexagileak 2022ko abuztuaren 29an eskatu zuen dirulaguntza behin-behinean aitortzeko. Hala ere, emandako informazioaren arabera, Alokabide sozietate publikoa ez zen hasi laguntza izapidetzen 2023ko urtarrilaren 3ra arte. Hau da, laguntza Arabako Etxebizitzako lurralde-ordezkariek erabakia ebatzi eta jakinarazteko zuen gehieneko epea baino beranduago hasi zen izapidetzen.

Gainera, sozietate publikoak dio 2023ko urtarrilaren 3an bertan telefonoz eskatu ziotela kexagileari 2022ko abuztuaren 29an egindako eskaera zuzentzeko, eta, dirudenez, hirugarrenen alta-agiria behar bezala beteta eta sinatuta entregatzeko eskatu zioten.

Azaldutakoa gorabehera, Arartekoak, bidalitako espedientearen kopia osoa aztertu ondoren, ez du ikusi Alokabide sozietate publikoak, organo izapidegilea den aldetik, kexagileari elektronikoki jakinarazi zionik inolako zuzenketa-errekerimendurik.

Hala eta guztiz ere, 2023ko urtarrilaren 11n, kexagileak agiri hori aurkeztu zuen, eta 2023ko urtarrilaren 16an, Arabako Etxebizitzako lurralde-ordezkariek behin-behinean onartu zuen prestazio ekonomikoa. Hala ere, Arabako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak, dirulaguntza behin betiko onartzeko, espedientearen dagoeneko jasota zegoen dokumentazioa aurkezteko eskatu zion.

Dokumentuak aurkezteko eskaera berri horrekin sortutako ziurgabetasunaren aurrean, 2023ko urtarrilaren 18an kexagileak berriro entregatu zituen 2022ko irailaren 15ean bidalitako errentamendu-kontratua eta dagoeneko organo izapidegilearen esku zeuden gainerako dokumentuak. Kexagileak Arartekoari bere harridura adierazi dio; izan ere, Arabako Etxebizitzako lurralde-ordezkariek errol-dziurtagiria aurkezteko eskatu zion, nahiz eta hasiera-hasieratik onartu bitarteko elkarrengarriaren bidez kontsultatzea.

Aurretik azaldutako guztia gorabehera, behin betiko ebazpena ez zitzaion elektronikoki jakinarazi 2023ko otsailaren 2ra arte. Hortaz, Arabako Etxebizitzako lurralde-ordezkariek 2023ko otsailaren 1a ezarri zuen dirulaguntzaren sortzapen-data gisa. Hau da, eskaera egin eta bost hilabete beranduago.

Dirulaguntzaren sortzapen-data 2023ko otsailaren 1a izan behar zela justifikatzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak Arartekoari argudiatu dio 2022ko apirilaren 26ko Aginduaren 14.3. artikulua prestazioaren ordaintzari dagokionez ezartzen duela behin-behineko aitopenen kasuetan, sortzapen-data dokumentazioa aurkeztu eta hurrengo hilaren lehenengo eguna izango dela, dirulaguntza behin-behinean aitortu ondoren.

Horrenbestez, oso garrantzitsua da kasu honetan administrazio-prozedura behar bezala antolatu, bideratu eta bultzatu den egiaztatzea, bidegabeko atzerapenak saihesteko, eta, horrela, alokairurako laguntza guztiz gozatuko dela bermatzeko.

8. Arartekoak gogorarazten du administrazio publikoek objektibotasunez zerbitzatzen dituztela interes orokorrak, eta fede onaren eta bidezko konfiantzaren printzipioen arabera jokatu behar dutela.



Hain zuzen ere, Espainiako Konstituzioaren 103. artikulua berariaz ezartzen du Administrazio Publikoaren jardunak objektibotasunez betetzen dituela interes orokorrak, eta eraginkortasun- eta koordinazio-printzipioen arabera jarduten duela, besteak beste, legerari eta zuzenbideari bete-betean men eginez.

Horretarako, administrazio publikoek bete egin behar dute legeetan xedatutakoa, baita araudi aplikagarriaren babesean egindako eskaerak eta erreklamazioak epearen barruan eta berariaz ebazteko betebeharra ere (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua).

Era berean, bizkortasun-printzipioak Administrazioari ezartzen dio ardura duen administrazio-unitatearen titularrak ofizioz bultza dezala, eta anormaltasun edo atzerapen oro saihesteko behar diren neurriak eman behar ditu (APELen 71. artikulua).

Are gehiago, kontuan hartu behar da dirulaguntzei lotutako administrazio-prozedurek administrazioaren ardura behar dutela bultzatzeko¹¹, hau da, administrazioek arreta berezia jarri behar dute mota horretako prozeduretan.

Illo horretatik, gaiak bideratzeaz arduratu behar duten administrazio publikoetako langileek eta instrukzioa egin eta ebazpena emateko eskumena duten administrazio-organoetako titularrek, bakoitzak bere eskumen esparruaren barruan, erantzukizun zuzena dute epe barruan berariazko ebazpena emateko legez ezarrita dagoen eginbeharra bete dadin.

9. Kasu honetan, Alokabide sozietate publikoak administrazio-izapidean izandako justifikatu gabeko atzerapena ez dator bat administrazioaren jarduketa arautu behar duten printzipioekin; izan ere, dokumentazioa berandu aztertu zuten eta, badirudenez, errekerimendua ebazpena egiteko eta jakinarazteko epea amaitu eta hilabete beranduago egin zuten telefonoz.

Gainera, Gaztelagun programaren alokairurako laguntza aitortzeko eskaera izapidetzeko ez bultzatzeak eragin du sortzapena justifikatu gabe atzeratzea eta jaso beharreko zenbatekoa baldintzatzea. Horrek programaren helburu nagusiari kalte egiten dio, hau da, gazteei merkatu libreko etxebizitza baten alokairua ordaintzen laguntzea eta, bide batez, emantzipazioan laguntzea.

Egia da araudiak ez duela une zehatz bat finkatzen interesdunari eskatzeko faltan duen dokumentazioa zuzendu dezala. Alabaina, prozedura ebazteko ezarritako gehienezko epea zerbitzu publikoa behar bezala emateko estandar gisa hartzen badugu (3 hilabete), zuzenketa eskatzeko 4 hilabete baino gehiago igarotzeak zeharo gainditzen du behar bezala aritzeko eskatu behar den estandarra

¹¹ **Galiziako Justizia Auzitegi Nagusia**. 1266/2012 Epaia, azaroaren 14koa. [ECLI:ES:TSJGAL:2012:9212].



Horri gehitu behar zaio espedienteko dokumentazioan ez dela modu frogagarrian jaso Alokabide sozietate publikoak zuzentzeko errekerimendua behar bezala jakinarazi zuenik.

Arartekoaren iritziz, eskaera eta eskaerarekin batera doan dokumentazioa egiaztatzeko fasea laburra izan behar da, helburu mugatua duen aldetik, eta ez da zertan luzatu ebazteko epeak erabat gainditzera arte.

Horrenbestez, Arartekoaren iritziz, zuzentzeko balizko eskaera (eskaera, dirudienez, telefonoz egin zen) prozedura bera ebazteko epea gainditu ondoren egitea zerbitzua behar bezala ez ematea da, eta horrek kalte kuantifikatu bat eragin du; hain zuzen, epean ebatzi izan balitz, kexagileari dirulaguntza ordaindu beharko litzaioke, baina berandutzeak kalte egin dio (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 32. artikulua).

Laburbilduz, sozietate publikoari egotzi behar zaio kexagileak legez jasan behar ez duen kalte bat eragin izana, zeina arrazoizko marjinetatik kanpo baitago. Horregatik, eragindako kaltearen ondorioz zehaztu behar da administrazioak duela erantzukizuna.

Arartekoak azpimarratu nahi du administrazioak ezin duela abantailarik lortu bere betebeharrak ez betetzeagatik. Ildo horretatik, Auzitegi Gorenaren otsailaren 27ko 299/2018 Epaia¹² berak hauxe dio:

- “Las consecuencias adversas de ese proceder indebido debe afrontarlas la Administración con arreglo al principio jurídico general que impide a los sujetos de derecho beneficiarse de sus propias torpezas o incumplimientos, condensado en el aforismo latino ‘allegans turpitudinem propriam non auditur’.”

Beste era batera esanda, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak ezin du babestu prestazioa eskatutako dokumentazioa aurkeztu den egunetik aurrera ordaintzeko erabakia, baldin eta gaitzetsi beharreko jokabidea, hain zuzen ere, Alokabide sozietate publikoak izapideak justifikaziorik gabe atzeratzea bada.

10. Azken batean, Arartekoak kexa izapidetu ondoren, behar bezala egiaztatuta geratu da kexagileak 2022ko abuztuaren 29an eskatu zuela Gaztelagun programaren alokairurako behin-behineko laguntza, bitarteko elektronikoen bidez. Hala ere, lau hilabete baino gehiago igaro arte, 2023ko urtarrilaren 3an, Alokabide sozietate publikoa espedientea izapidetzen hasi zen. Hau da, Arabako Etxebizitzako lurralde-ordetzariari eskaera ebazteko eta jakinarazteko emandako epea baino beranduago.

Horrenbestez, aitortzeko eskaera justifikaziorik gabe berandu sustatzeak bakarrik eragin du kaltea prestazioa berandu ordaintzeagatik.

¹² **Auzitegi Gorena.** 299/2018 Epaia, otsailaren 27koa. [ECLI:ES:TS:2018:704].



Gaztelagun alokairurako laguntzak arautzen dituen deialdiaren arabera, behin-behineko aitordenaren kasuetan, laguntza behin-behinean aitortu ondoren eskatutako dokumentazioa aurkeztu eta hurrengo hilaren lehena izango da prestazioa ordaintzeko eguna. Beraz, ez da onargarria Alokabidek bultzatutako jarduketak atzeratu izana, eta, kasu honetan, erabakia ebazteko eta jakinarazteko aurreikusitako epea baino gehiago atzeratu dira.

Hori dela eta, Arartekoak ezin du baliozkotzat jo prestazio ekonomikoaren sortzapena 2023ko otsailaren 1etik aurrera egitea. Hori dela eta, erakunde honen iritziz, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak, APELen 65. artikulua arabera, ofizioz hasi beharko lituzke laguntza izapidetzeari izandako atzerapenak eragindako kaltea konpontzeko beharrezkoak diren jarduketak.

Era berean, Arartekoak uste du Alokabide sozietate publikoak kexagilearen eskaera zuzentzeko eskaerari dagokionez erabilitako eginbidean hobetzeko tarte dagoela. Arartekoaren ustez, interesdunari telefonoz deitzea ez da modurik egokiena eskaera osatu behar duela jakinarazteko, eska daitezkeen berme juridiko guztiekin.

Horregatik guztiatik, Arartekoak gomendio hau egiten du, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Azaldutako guztiatik, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak ofizioz hasi ditzala kexagileari Gaztelagun programaren alokairurako dirulaguntza batengatik sortutako zenbatekoa berrikusteko beharrezkoak diren jarduketak.

Nolanahi ere, adierazitakoari jarraikiz, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak azter dezala beharrezkoa den Gaztelagun programaren alokairurako laguntzak izapidetzeko Alokabide sozietate publikoari aitortutako ahalmenak egokitzea.

Hizpide den kexan Alokabidek izapidetzeko baliatutako epeei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak beharrezko baliabide teknikoak eta langileak eskuratu ditzala Gaztelagun programaren alokairurako dirulaguntzen izapidetzea legezkoasun-, eraginkortasun- eta bizkortasun-printzipioekin bat etor dadin.